

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

2005

AGINDUA, 2025eko maiatzaren 6koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuarena, Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzako «lurralde-ordezkeri» lanpostua izendapen askez betetzeko deialdia ebazten duena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.2.c) artikuluan eta Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuaren 2025eko martxoaren 5eko Aginduaren laugarren oinarrian (2025eko martxoaren 17ko EHAA, 52. zk.) xedatutakoaren arabera –agindu horren bidez iragartzen da Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzako «lurralde ordezkeria»ren lanpostua izendapen askez betetzeko deialdia (kodea: 511786; dotazioa: 11)–, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Antton Arrieta Insausti jauna izendatzea Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzako lurralde-ordezkeri (kodea: 511786; dotazioa: 11; destino-osagarriaren maila: 29; berariazko osagarria: 0-A).

Bigarrena.– Izendapen horrek 2025eko maiatzaren 7tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke agindua eman zuen organoari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzaren 6a.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburua,
MIKEL JAUREGI LETEMENDIA.